



AEB ENPRESAREN BALIO PROPOSAMENA

Animalien esperma-banku enpresa bat gara gu, hau da, saltzen duguna zerbitzu bat da. Gure enpresaren helburuak honako hauek dira, batez ere:

- Animaliak inseminatzea kumeak edukitzeko
- Bezeroak bere animalia-aren arraza beste arraza batekin gurutzatzea, bi horietatik bezeroak nahi duen nahasketa ateratzeko.

Izan ere, AEB enpresak berak ekoizten du saltzen duen zerbitzua, hau da, profesionalak ditugu eskaintzen dugun zerbitzuan jarduteko. Beste aldetik, animalientzako janaria ere saltzen dugu, hornitzaile bati erosten dioguna.

Askok nahi duguna, gure zerbitzua kalitatezkoa, erakargarria eta merkea izatea da. Hain zuzen ere, gure enpresak albaitari onenak eskaintzen ditu bezeroei segurtasun eta konfiantza handiagoa emateko.

Gure konpetentzia murriztua da Espainia mailan. Bilaketa bat eginez gero, ikusi dugu gure konpetentzia oso txikia dela. Espanian, soilik enpresa bat antzekoa egiten du, baina txerriekin. Gure zerbitzua osatuagoa da, edozein animaliekin lan egin dezakeegu beraz, gure konpetentzia ez da oso sendoa. Haztegiekiko dugun abantailetakoa bat da, gure zerbitzua enkarguen bitartez funtzionatzen denez (hitzordua eskatu behar da), ez dugula inoiz behar baino animalia gehiago izango (ez zaizkigu hitzorduak pilatuko ordutegi jakin bat jarraituko dugu).

Horrez gain, gure enpresak garapen iraunkorreko 3 helburu betetzen ditu, eta honako hauek dira:



Lehenik, osasun eta ongizatea; gure zerbitzua animalien osasunean hobekuntza ekartzen du mediku espezializatuak dauzkagulako.



Bigarrenik, lan duina eta hazkunde ekonomikoa, gure enpresak lanpostu asko sustatuko ditu, hala nola; albaitariak, garbitzaileak, kutxazainak...



Azkenik, klima babesteko ekintza egingo genuke. Gure ondasuna animalien janaria da, eta ondasun hau egiteko materiala guztiz birziklatuta dago; egiazki, ingurumenari laguntzeko. Bai janari-latak eta janari-poltsen plastikoa birziklatuak dira.